ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko maiatzaren 10a/X. urtea/404. zkia

• **ERREPORTAJEA** EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELDUN OHIA
• **GEHIGARRIA** MIKEL HERNANDEZ ABAITUARI ELKARRIZKETA • **KULTURA** ONGARRIREN ZINE ZIKLO BERRIA

# Barren

ASTEKARIA




## Jose Urkidi

### Euskal Herriko Mus Txapelduna izandakoa:

# “Hordago musari”



KARTAK MEHE TA JOKOA LODI (esaera zaharra)

# GREMIOEN GIDA

•remioen gida horreta'n azaldu nahi baduZu, deitu ! 0 943 74 37 04

## A.RQZTE.GiAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
rk 943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
r: 943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotra-tuak
Santa Ana, 8
z° 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
z' 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
Ti" 943 74 03 96

## 1:15©

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
943 74 30 94

## HMPO pECIEKTUnE @gci

**ETXEKIT**
Antonio Arrillaga, z/g
r 943 74 43 47

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
943 74 17 61
689 04 92 06

**ONGI**
Urasandi, 8
z' 943 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
Tr 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
z' 943 75 50 62
607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
v 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
943 74 07 89
u` 608 14 30 40

## RTU[alr

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
943 74 04 40
v607 74 04 40

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
943 74 15 52
w 606 43 11 19-20

## ArT,IPZUM1 IZW<

**JESUS MIGABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
vk 670 41 20 73

## ELEKTRIZIDLTE44

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
Tr 943 7412 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
z' 943 74 12 38

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
s° 943 74 09 02
n• 659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
T 943 74 13 76

## [11317ZU_T

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
IT 943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
T 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
943 74 29 87
z' 679 19 77 47

## RREMENTERIA

**IRANE 2000**
Olaso, 17
rl? 943 74 30 95





## Otsoa

Otsoaren ipuina "best-seller" izendatu beharko dute aurki. Aurreko egunotan hamaika aldiz entzun behar izan dugu ipuin klasikoaren bertsio berria, telebistaz, irratiz, egunkarietan... Oraingoan otsoak izena zeukan: Jean-Marie Le Pen. Frantziako superprodukzio horretan Jacques Chirac ikusi dugu artzainaren rolean. Filmaren lehen zatia amaitu da, baina ekainerako jarraipena iragarri digute.

"Eskuin muturra" hitza entzunda iraganeko zuri-beltzezko irudiak etortzen zaizkigu burura, xenofobia, naziak, pentsamendu bakarra, aniztasunik eza... "Guk euri badugu, izango duzue ihintz", dio esaera zaharrak, eta Holandan ere hala pentsatu bide du norbaitek. Datorren asteazkenean hauteskundeak egingo dituzte Herbeheretan, eta eskuin muturraren gorakada handia espero zen. Film horretako otsoa Pin Fortuyn eskuin muturreko liderra zen, eta pelikulatik kanpo utzi dute. Denborak esango digu hortik nork aterako dituen irabaziak.

Ez da berria eskuin muturraren gorakada Europan. Eta poliki-poliki hedatzen doan joera da. Beldurgarria askorentzat. Eta jendearen beldur hori aprobetxatzen du askok bere karrera politikoa egiteko. Frantzian ustelkeria kasuetan zerikusia izatea leporatzen diote Chirac-i, baina bost axola, sudurrean pintza jarrita edo pintzarik gabe, hobe eskuin leuna muturra baino! Pentsatu du askok. Beltza eta grisaren artean aukeratu behar izan dute, eta gainontzeko koloreak baztertu.

Q- N. 0 0 (1)

**"Beltza eta grisaren artean aukeratu behar izan dute"**

**Montse Arregi**

## Keinuak

Gizakiok, hizkuntza bat garatu dugu elkar ulertzeko. Bera prestatzen da gure ideiak, pentsamenduak, kezkak eta elkarrizketak aurrera eramatera. Baina batzuetan, ahotik irtetzen dena alde batera utziz, gizakiok badugu keinuen bidez hizkuntza berezi bat garaturik, eta askotan, hitz egiten dugun heinean, keinuek ere hitz egiten dute.
Norainokoa izango ote den keinuen esanahia ez nago ziur, baina bai gure momentuko egoeraren informazio ezkutua adierazten du.
Harrigarria da, hizkuntzaz aparte, gure gorputzak duen itxurarekin nola beste hizkuntza propio bat gara dezakeen. Besoak, eskuak, behatzak, hankak edo eta gorputzeko edozein zati, gure burutik pasatzen ari denarekin bat egiten duela.

**Jokin Martinez**

Kexak .......... 5
MOtZ M OtZ .......... 8
gehigarria .......... 13
kiROlAk .......... 20
aGentia .......... 24

2002-V- 10

## 2002K0 AURREKONTUAK DIRELA ETA

Elgoibarko Batasunak apirilaren 20an egindako prentsaurrekoan EAJ-PNV eta EAk aurrekontuekin izandako jokabidea salatu du eta, bide batez, Batasunak bere ezezko botoa azaldu nahi izan du.

Batasunak behin baino gehiagotan eskatu izan dio gobernu taldeari aurrekontuen berri eta azkenean, gobernu taldeak aurrekontuak batzordeetan eztabaidatzeko eta erabakitzeko rnetodoa aurkeztu zuen. Batasunak egokitzat jo zuen proposamena, metodo horrek batzordeak edukiz eta egitasmoz betetzen zituelako eta, gainera, Udala deszentralizatzeko modu egokia izan zitekeelako. Baina usteak erdi ustel. Batasunak laster ikusi zuen gobernu taldeak agindutakoa ez zela gauzatuko: Batzordeek ez dute aurrekontuak eztabaidatzeko bilera espezifikorik egin; Batasunak batzordeetako ohiko bileretan aurrekontuei buruz egindako proposamenez batzorde buruen erantzuna "dirurik ez dago" izan da behin eta berriz, edo eta beraiek ez dutela ezer erabakitzen.

Batasunak, noski, ezetza eman die 2002ko aurrekontuei eta ez bakarrik aurrekontuak eztabaidatzeko aukerarik izan ez delako. Aurrekontuek ez diote plan global bati edo legealdi baterako aurkeztu ohi diren egitasmoei erantzuten. Batasunaren ustetan, aurrekontuak alkatearen apeta edo kapritxoen menpe daude, gobernu taldeak hori eta gehiago ere egiteko "askatasuna" ematen diolako. "Askatasun" horren adierazgarri adibide ugari aipa liteke, baina bakar batzuk baino ez ditugu aipatuko:

Adibidez, iaz udalak Plaza Txikiko lokalekin zerbait egiteko asmo serioa zuela ematen zuen eta aurten Plaza Txikiko Iokalek ez dute inolako tokirik aurrekontuetan. Beraz, asmo guztiak bertan behera gelditu dira?

Horretaz gainera, iazko urtean auzoen arteko komunikazio arazoak aztertzeko aurreikusi zen dirua gastatu gabe, konpondu al dira komunikazio arazo horiek? Aurten, behintzat, aurrekontuek ez dute gai horri buruzko ezer kontuan hartzen.

Bestalde, San Lazaro egoitzaz gertatutakoak aparteko atala merezi du. San Lazaro fundazioan alderdi guztiek aho batez zuzendaritzak aurkeztutako aurrekontuak (50 milioi pezeta) onartu ondoren, alkateak erabaki hori atzera bota eta aurrekontu hori rnurriztu egin du, Halako adibideen zerrenda luzeegia litzateke hemen agertzeko.

Batasunaren ezezkoa borobila izan da beraz. Batasunak alderdien artean adostutako aurrekontuak zehazteko borondatea agertu du behin eta berriz, aurrekontu integratzaileak, partehartzaile eta irekiak izan daitezen nazio eraikuntzan gure instituzio nazionala (Udalbiltza) indartzeko apustua gauzatuz joan dadin. Bestalde, Batasunak bere proposamenen artean alde sozialari eman nahi izan dio garrantzia: auzoen arteko komunikazio arazoak konpontzeko, etxebizitza hutsen azterketa burutzeko (alokairua sustatzeko asmotan), herriko kultur dinamikari eta "kultur guneari" (Plaza Txikiko lokalak???) laguntzeko, udaleko remanentea San Lazaro egoitzari zuzentzeko, Udalbiltza eta Xiberoa 2010 Garapen Egitasmoa diruz hornitzeko eta abar luze bat.

Batasuna Udal Taldea

# Urruzunoren
## begi ezkutua

## Bidaia goxoak muxutruk? Nun???



Utopiak txaboletan, PRESO. Hitzak mahaietan, MUTU. Buruak lepo gainean, maiz.... LO. Ahoak ez jakintasunean... MARMARKA, HIPOKRESIARI ESKUA EMANDA. GURE EUSKAL HERRI MAITTIA, LAGUNTZA ESKE, OIHUKA!!! TXILIZIOKA!!!
HERRIA ERAIKITZEA, BESTE HAREN LANA DA, ETA NI OHERA NOA, GOXO-GOXO, AMETSEN MUNDURA. EUSKAL HERRIA NAHI DUT, ESNATZEN NAIZENERAKO. ZUEK ERAIKIKO DUZUE, EZTA? NIRI EZ DAGOKIT LAN HORI EGITEA... BAINA,.. LANA FUNDAMENTUZ EGIN BEHINGOAGATIK!!! DESASTRE HUTSAK ZARETE. NI LOTARA NOA... BESTEEK EKIN DIEZAIOTELA LANARI. ONDO LO IN!!!

**AMAIA URZELAI BARRUTIA**

ASTEKARIA
**BaRRen**

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
n• 943 74 41 12
Publizitatea:
r 9437437 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topaguneacom
Helbide informalikoa:
www.topagunea.com/barren
Anorranarzaara
Elgolbarko Izarra

LA3111(17AILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jon Iñaki Lasa KAZETARIAK Irati Ag irreazaldegl, Aster OrbeaPUBLIZSOITEA Amaia Erkizta MAKETATZAILEA Iker Diego AcnotestranoA Amala Roddgez GEREWIR Jon Pell Unguen KOLABORAIZALEAK Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pallo Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edume Bilbao, Golzon Arrieta, Larea Perez de Albeniz, Jokin Madinez, Mordso Arregi,Juanko Gorostiza Aiihoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.i, AZALEICO ESAERA nomiRA Gotzon Garaleren liburutik INPIIMATEGIA GOTIU KOOP. E. TRADA 4.025 al8 LEGE GORDAILLIA 1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaarlaritzakij Kultura Sailak eta Foru Aldturdiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa

DANOBAT
GRUPO DANCISAT

i(s11¹¹¹¹¹





Leku Eder deitzen zaion paraje eder horretan oso egoki daude jarlekuak, baina etxe azpian dagoen aterpean, batez ere euria egiten duenerako jarleku batzuk ezarriko balituzte, aterpea janzteaz gain, mesede handia egingo Iigukete bertan ibiltzen garenoi, gaztetxo zein nagusioi.

4I> Plaza Txikian aparkalekuak aldatu dituztenetik, 20 plaza gutxiago daude autoentzat. Ez al daukagu, lehendik ere, nahikoa arazo autoak aparkatzeko Elgoibarren?



* Errekan, Santa Ana kalearen parean ahate batek 12 kume zituen eta gizon batek, Sigmako andamiotik jeitsi eta 3 kendu dizkio. Beste 3 ito egin dira edo urak eraman ditu. Zergatik ez dira ahateak errespetatzen?

Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com helbidera.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# Erreporto ea

# jolua baino gelago

## MISAREN JATORRIA

Euskal Herrian eta 17. mendean kokatzen dute autore guztiek mus karta jokoaren jatorria. Karta sorta espainiarra erabiltzen duen joku honi buruzko lehen aipamena Don Manuel de Larramendi euskal filologo eta jesuitak egin zuen bere 3 hizkuntzetako hiztegi ezagunean (Euskara, Gaztelania eta Latina). Donostian argitaratu zen hiztegiaren lehen edizioa 1745. urtean. Bertan agertzen zenez, euskaldunen artean errotutako eta zabaldutako karta jokoa zen jadanik. Taberna zuloetan hartu zuen indarra musak, baina ez pentsa mozkorren arteko jokua denik. Denbora tarte laburrean adin eta maila sozial guztietako jendea hasi zen musean jokatzen.

## "lius" hitzaren jatorria

Joan Corominasen hiztegi etimologikoaren arabera 1843. urtean sortu zen "mus" hitza. Euskarazko "mux" (edo mus) hitza frantsezezko "mouche" hitzetik datorrela dio.

Musa interneten

Gaur egun internet bidez musean jokatzea ere posible da, baina jokoak bere-berea duen apustu giroa eta jokalariak aurrez aurre daudenean sortzen den xarma berezia galtzen da. Dena dela, norbaitek musean jokatzen ikastea nahiko halu, eta bere ingurukoek arreta askorik jarri ez badiote edo oso argi azaltzeko gai izan ez badira, sarean badaude zenbait helbide musaren araudia eta jokoaren garapena era ulergarrian azaltzen dutenak. Hona hemen gomendatutako helbide batzuk:

www.ludoteka.com/mus-eu.html
www.geocities.comfrhnesSquare/4656/reglas.htm
http://personal.redestb.es/almn/mus.htm
http://usuarios.lycos.es/Mus/
http://meffingpot.fortunecity.com/malaysia/808/



*Jose Urkidi egunero joaten da Iriondo tabernara. Bertan elkartzen dira lagun koadrila musean jokatzeko*

usean badago keinuak erabiltzeko ohitura eta aukera: horien bitartez jokalari hatek bere hikoteari ezkutuan zein konbinaketa, duen jakinarazi diezaioke. Keinuak erabiltzekotan denek ezagutu eta adostu hehar dituzte.



# Jose Urkidi: "Lehenengo ustelakin nahikua dakat kontrarixuak musian zela jokatzen daban antzemateko"

*Jose Urkiclik (75 urte) 78 urte zitue1a ikasi zuen musean eta urte hauetan guztietan hainbat ardu pasa ditu mahai bafen buelfan musean jokatzen, eta ez nolanahi gainera. Duela 25 urte Euskal Herriko 1. Mus Txapelketa irabazi zuen eta berak aipatu cligunez, Gipuzkoan gutxi izango dira berak adina Mus Txapelketa irabazi dituztenak. Zein hoberlk, beraz, kartcr joku honen sekretuak azaltzeko.*




-Euskal herriko Mus txapelduna izana zara? Bai, 1977. urtian Euskal Herriko 1. Mus Txapelketa jokatu zan Plaentxin. Sabandoz elgoibartarrakin ein naban bikote eta irabaztia lortu genduan. 207 bikote aurkeztu zian.

-Dena den, ez da irabazi duzun txapelketa hakarra izan, ezta? Halaxe da. Elgoibar eta inguruko herrixetako hainbat Mus Txapelketetan hartu dot parte eta baitxa mordua irabazi ere. Gipuzkuan ez da eongo nik aina txapelketa irabazi dabanik.

-Munduko Mus TxapeIketan parte hartzea ez al zaizu inoiz burutik pasa? Munduko Mus Txapelketarik zauanik ere ez nakixan, baina muserako Lehen nakan abilidadia eukiko banu, gaur bertan hartuko naban parte, ta ojo!

-Txapeiketetan beste tentsio bat nabari al da? Bai, baina nahixao dot. Lagun artian euro bat jokatzen dogu eta errezao jotzen dia gizurrak, galtzeko gitxi daualako. Txapelketetan askoz ere serixuao jokatzen da.

-Noiz ikasi zenuen musean jokatzen? Nere kasa ikasi naban 18 urtekin. Edozeinekin eta asko jokatu dot ordutik musian.

-Nlusean jokatzen erakustea erreza al da? Ez. Arauak erakutsi leikez, baina musian benetan jokatzen erakustia beste gauza bat da, denboria bihar da eta asko jokatzia.

-Zenbatekoa izan da egin duzun mus ekinaldi luzeena? Lau ordutik gorako ekinaldixak askotan ein ditxut. Lagun arte gustukua izanez gero, 10 orduan segitziak ez dia inporta.



*Jose Urdkidik birritan irabazi zuen Gorostiza tabernako mus txapelketa eta beste behin txapelorde izan zen*

-Non ,jokatzen duzu normalean? Iriondo tabernan elkartzen gera egunero. Lehen aldian gitxi jokatzen dot oin, ez dakatelako lehengo fazilidaderik eta nerbixuek galtzen nabe. Hala ere, bestieri begira egotia gustatzen jata.

-Euskaraz egiten al duzue jokoan? Tartian erdaldunik ez bada tokatzen bai. Erderaz berba eitxen nahiko baldar moldatzen naiz, baina museko asuntua, esamoldiak-eta, ondo dominatzen ditxut.

-8 ala 4 erregetara? Beti 8 erregetara (hirukuak erregetzat hartzen dia eta bikoak batekotzat).

-Zenbateko garrantzia dauka zorteak musean? Suertia biharrezkua da, baina musian jokatzen jakin ein bihar da. Psikologia oso inportantia da. Kontrarixuak zelan jokatzen daban antzeman bihar da; jotzailia, gezurtixa, konserbadoria... zelakua dan, alegixa. Generalian 3 usteletara jokatzen dia partidak eta lehenengo ustela nahikua dakat, kontrarixua zelakua dan jakitzeko. Ustel bat galdu arren, gero remontau leike.

-Eta zein da zure estiloa? Muslari serixua naiz ni, baina naturalian, konbersazivan ere halakotxia naiz. Barre gitxi eitxen dot jokatzen nauanian eta ez naiz beste batzuk moduan txir txar ibiltzen. Ostantzian, kontrarixuak edo momentuak eskatzen dabanan arabera jokatzen dot. Jo bihar danian jo eta bestela ixilik egon. Jo ere ez da edozein modutara ein bihar, kontarrixuak zela erreakzionauko daban ikusteko jo leike gizur bat, edo ondorengo jugadia preparatzeko eta despistatzeko, adibidez.

-Zein dira muserako kartarik onettak? 3 errege eta batekua esaten dabe, baina errege-kaballo dupliak ere edarrak dia.

-Zer da musetik gehien gustatzen zaizuna? Dana, jokua bera, sortzen dan girua...

# Elgoibar eta Debako torereoen arteko lehia izango da Trinitateetako zezenketa komikoan

## "Tati"-k, "Txato Garate"-k eta "Mekano"-k osatuko dute Elgoibarko koadrila

rirrinitate jaien usainean aurten ere Mazzantini Zezenzale Elkarteko kideek zezenketa komikoa antolatu dute datorren maiatzaren 18rako. Plaza Txikian Sakako zezenei aurrea hartzen saiatuko dira Elgoibarko eta Debako toreroak.

Arratsaldeko 17:00etan hasita herrian "paseillo"-a egin ondoren, Errosarioko amabirjinari errezatu eta Plaza Txikira abiatuko dira. Bertan Ifiigo Arrizabalagaren zaldi munta erakustaldia izango da lehenik eta gero Errioxako Alfaro herriko errekortadoreek "La bañera torera" ikuskizuna eskainiko dute. Emanaldiaren ostean etorriko da jendeak hainbeste esperotako zezenketa, aurten elgoibartarren eta debarren arteko lehia izango dena. L.L Gorrotxategi "Planti", "Plantillerito" Elgoibarko toreroaren semea izango da zezenketako presidentea eta beraren zein herritarren aurran erakutsiko dute beraien abilezia torero afizionatuek.



*Arratsaldean, herrian "paseillo"-a egin ostean, Plaza Txikian izango da zezenketa.*

**Bi koadrila**

Elgoibar eta Debako bi koadrila jarriko dituzte antolatzaileek aurrez aurre lehia giroan ikusleen grina pizteko. Elgoibarko koadrila iaz aritutako Jose Luis Arana "Tati"-k, Itlaki Alonso "Txato Garate"-k eta Angel Sanz "Mekano"-k osatuko dute. Debarren taldean, berriz, Aiert Alba "Tormento Buruzuri" eta Julen Badiola "Txikito de Aldatzekua" arituko dira. Toreroei laguntzeko Manolak ere ez dira faltako egun horretan. Aurten, ordea, elgoibartarrik animatu ez denez, Eibarko 4 neska joango dira toreroekin. Zezenzaleek edo arratsaldea umore giroan pasatu nahi duten herritarrek horretarako aukera paregabea izango dute maiatzaren 18an, Plaza Txikian izango den zezenketan.

# Aurrejubilatuek pentsioen erregulazioa eskatu dute

## Elgoibarren 800 aurrejubilatu inguru daude

Joan den apirilaren 18an Espainiako aurrejubilatuek manifestazioa egin zuten Madrilen pentsioen erregulazioa eskatzeko. Izan ere, beraien esanetan dagokiena baino gutxiago kobratzen dute. Hau da, aurrejubilatu askok 35 urtetik gora kotizatu eta pentsioaren %100 kobratzeko eskubidea eduki arren %60 baino ez dute jasotzen. Alargunen kasua are larriagoa da, %45 baino ez baitute kobratzen.

**Bailarako elkartea**

Debabarrenean bada aurrejubilatuen elkarte bat eta bertan Elgoibarko ordezkaria da Rogelio Vela. Bere esanetan, "Elgoibarren enpresa asko itxi dira, Sigma eta San Pedro esaterako, eta 800 aurrejubilatu inguru izango gara herrian". Beraien eskari nagusia, kotizatutako urteen araberako pentsioa jasotzea da. "Aurrejubilazio eta pentsio justua eskatzen dugu bai guretzat eta baita Iangileen alargunentzat ere. Honela, 65 urtera iritsitakoan 35 urte kotizatu dituztenek %100 jaso beharko lukete". Rogelio Velak herriko aurrejubilatuei dei egiten die elkartean parte hartzeko eta beraien eskubideen alde borrokatzeko. Horretarako 2.000 pta. ingresatu beharko dira Kutxako kontu korronte zenbaki honetan norbere izena zehaztuz: 2101007992001094365.2.



*Apirilaren 18an Espainiako aurrejubilatuek manifestazioa egin zuten Madrilen.*

2002-V- 1 0

## Jende asko inguratu zen Galizia Etxeak antolatutako jaietara

Pasa den asteburuan Urasandi auzotik Galiziako gaita doinuak, pulpo egosi berriaren usaina eta berbena taldearen musika doinuak heldu ziren herriko kaleetara. Txapligo bidez bertara gerturatzeko gonbitea luzatu zuten Galizia Etxeko antolatzaileek eta giro ona aurkitu zuten bertaratu zirenek. Galiziako gastronomiak eta folkloreak Euskal Herrikoarekin bat egiteko aukera ere izan zuen txistularien doinuz eta Haritz Taldekoen dantzaz. Antolatzaileek esan digutenez, "eguraldia lagun izan ez bazen ere, ekitaldietan jende askok hartu zuen parte; batez ere, gaueko dantzaidian. Bestalde, Haritz Dantzari Taldeak eta Ermuako Grupo Xoven gaita taldeak, saio polita eskaini zuten. "Pozik gaude jendeak emandako erantzunarekin eta gauzak ongi atera direlako".



## Bi sute izan ziren joan den ostiralean Elgoibarren



Joan den ostiralean, maiatzaren 3an, bi sute izan ziren Elgoibarren eta suhiltzaileek izan zuten lanik, batean eta bestean sua itzaltzen. Lehenengoa, Urasandi auzoaren gainean dagoen Errezabal baserrian izan zen. 14:30ak inguruan jaso zuten abisua udaltzainek eta tximinian sortutako sutea itzaltzeko, suhiltzaileen lana beharrezkoa izan zen. Lana bukatuta zegoela uste zutenean, ordea, beste abisu bat jaso zuten suhiltzaileek. Hurbil informatika dendan ere, San Inazio kalean, sutea izan zen, laster amatatu arren izugarrizko kea atera zela esan digute eta kalteak ere izan ziren beheko partean. Oraindik argitu gabe dago sute hau zerk eragindakoa izan zen.

## 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazan




Merkatu Plazako dendariek, hilabetero egin ohi dute zozketa bezeroen artean. Oraingoan 60 euroko 4 sari banatu dituzte. Diru kopuru hori erosketa txekeetan jaso **dute eta Merkatu Plazan bertan** gastatu beharko dituzte. Sarituak **ezkerretik eskumara: Ainhoa** Arrizabalaga, Miren Femandez, **Josefa Etxebarria eta Leonor** Figueira. Datorren hilabetean ere **egingo dute zozketa dendariek,** erosketak Merkatu Plazan egiten **dituzten bezeroen** fideltasuna saritzeko.

## Uxue Alberdi elgoibartarrak, bigarren saria eskuratu du Ebar Hiria ipuin lehiaketan



Liburuaren eguna atzean geratu zen arren, Eibarren egun hartan banatu zituzten Eibar Hiria ipuin lehiaketako sariak. Trabazleen artean Uxue Alberdi elgoibartarra zegoen. 18 eta 25 urte arteko mailan bigarren saria eskuratu zuen berak. 180 euro eman zizkioten eta honetaz gain, bere lana argitaratu egingo dute. "Zergatik ez, ilargi?" izenburupean, fantasiazko ipuin baten bidez Marokoko neska batek bizi duen egoera kontatu du Uxuek, besteak beste matxismoaren eragina jorratu duelarik.

## Hirugarren Munduan gero eta egoera larriagoa bizi dute.

# Ier egin dezakegu Hirugarren Mundukoei lagunlzeko?



### ARANTXA NARBARTE
54 urte, garbitzailea

Gure esku al dago ba, beraiei laguntzea? Politikariek egin beharko lukete egin beharrekoa. Guk zerbait egitekotan Gobernua presionatzea izan liteke bide bakarra.

### ALBEFITO ARRIOLA
39 urte, ofiziala

Umiak apadrinau, ez da asko kostatzen-eta. Horrekin ez da problemia konpontzen, baina laguntasun bat behintzak izan leike, batez ere eurak dialako etorkizuna.





### INES GARAMENDI
78 urte, etxekoandrea

Gure adinarekin ezer askorik ezin dezakegu egin. Baina ahal duenak dirua emanez edo umeren bat apadrinatuz, lagundu dezake; batez ere, jende gazteak.

### LUIS ARTEIXE
72 urte, jubilatua

Langiliak ezin dau eman, baina asko dakanak eman deixela harek mantentzeko. BBVA, Gescartera eta kaso horretan ibili dianeri kendu eta dirua hara bialdu biharko litzake.





### JESUS MARI LLORENS
36 urte, elektrizista

Guk ekonomikoki lagundu genezake, baina, hala ere, bertan ez dute produzitzeko mediorik. Modu partikularren, misiolari moduan bertara joaten ez bagara... ezer gutxi egin genezake.

### MARCELA LOZANO
42 urte, almazenista

Apadrinatzea izan liteke laguntzeko modu bat eta hainbeste diru duen jende horrek gehiago ematea, ez diezaguten beti eskatu gutxien dugunoi, hemen ere ez baikara erabat ongi bizi.



Udaberriko menu bereziak eta aste honetarako menua:
Risoffoa ganbekin
edo
antxoa kefuekin entsalada
Biribilkia saltsan
edo
lupina bearnesa erara
Etxeko postrea eta kafea 12 euro
Basarte Auzoa, 4
2e(f_ Yax: 943 743 426
20870 E(goibar
SIfiSfIRT
JATETXEA

URK1Di AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kdamua, 12 • ELGO(BAR
Tei-Faxa: 943 74 18 91
THE HARTFORD
ASEGURUAK

## Elgoibar Ikastola-ko DBH 4eko ikasleek SOS Arrazakeria taldeak antolatutako kulturarteko topaketan hartu zuten parte

Gipuzkoako 30 ikastetxetako DBHko hainbat ikaslek SOS Arrazakeria taldeak antolatutako Kulturarteko topaketetan hartu dute parte, tartean Elgoibar Ikastolako DBH 4ko 52 gaztek. Topaketa egunean beste 5 ikastetxerekin batera Lasarteko Oztaran eskolan elkartu eta arraza eta lurralde ezberdinetako kideekin beraien ohiturak, dantzak, istorioak, kontakizunak eta errefuxiatu bezala izandako bizipenak konpartitzeko aukera izan zuten. Besteak beste, Afrika Beltzeko, Magrebeko, Hego eta Ertamerikako bizilagunak eta Ijitoak izan ziren. Esperientzia oso aberasgarria izan dela esan digute.





## Herri Eskolako ikasleak eta gurasoak Samiño mendira egin zuten irteera

Apirileko azken igandean Herri Eskolako ikasleek eta gurasoek irteera egin zuten 932 metroko garaiera duen Samiño mendira. Autoz Azkoitiko Martirieta auzora abiatu eta eguraldi ona lagun, bertatik abiatuta egin zuten ibilaldia. Goiz polita igaro ostean, eguerdian itzuli ziren 26 lagunak Elgoibarrera. Herri eskolako guraso Elkarteko mendi taldeko arduradunek esan digutenez, "aurten sortutako taldea da eta pozik gaude hileroko irteerek izan duten erantzunarekin".

## Udalekuetarako izen-emate epea ireki dute Atxutxiamaika eta Gaz-T aisialdi taldeek

Udaberri betean gauden honetan oraindik batzuk udako oporrak urruti ikusten dituzte. Hala ere, izango da planak egiten hasi denik. Etxeko ume eta gaztetxoekin pentsatuz, udalekuak antolatu dituzte Atxutxiamaika eta Gaz-T aisialdi taldeek. Arduradunek, izena emateko epea maiatzaren 23an amaituko dela jakinarazi nahi dute.

ATXOTXIAMAT kA

udtath ke,I3Bc111
Elgoibar (9:30-12:30)
Uztailaren letik 19ra
Haur Hezkuntza, LH 1 eta 2
34 EUR

OC11116th lita+
Acalza
Uztailaren 8tik 14ra
LH 1, 2 eta 3 mailak
92 EUR

kPnZ
Uztailaren 9tik 2 Iera
LH 4
170 EUR

Uzawa
Uztailaren 2tik 14ra
LH 5 eta 6 mailak
170 EUR



GAZ-T

eiddlatm
iltchotz
Uztailaren 2tik 14ra
DBH leta 2 mailak
185 EUR

koal
Uztailaren 2tik 14ra
DBH 3 eta 4 mailak
185 EUR

# nola ALDATU diren gauzak!

2002-V-10



**1940.** urte inguruan ateratako erretratu honetan Elgoibarko animalia hiltegia edo "mataderoa" izan zen eraikina ageri da. San Frantzisko kalearen amaieran zegoen, gaur egun Madalako parkea dagoen tokian. Garai hartan 317 baserrik inguratzen zuten Elgoibar, eta noski, "mataderoan" jo eta ke aritzen ziren lanean, egunero abere asko ailegatzen baitziren azken arnasa botatzera. Garaiko elgoibartar askorentzat ikuskizun aparta zen "matarifeek" abereak nola hiltzen zituzten ikustea eta jende mordoa inguratzen zen ikusmiran. "Matarifeek" bekokian mailukada bat joz konorterik gabe lagatzen zituzten abereak, ondoren hiltzeko. Ganaduaren pisuari buruzko apustuak ere egiten zituzten ikusleek. Hau guzti hau dela-eta "mataderoa" oso leku ezaguna zen herrian.



**2002.** Gaur egun, asko aldatu dira gauzak leku honetan. Hiltegia zegoen tokian Madalako parkea egin zuten, eta matadero berria Melitongo zubiaren ertzean eraiki zuten. Madalako parkea herriaren erdigunean dagoen leku lasai eta polita da gaur egun. Aintzina abere hiltegi odoltsua izan zena, haurren jolasleku eta pertsona nagusien pasealeku bihurtu da. San Bartolome jaietan ere jaigiroaren eta hainbat kontzertu eta ekintzen zentrua da.

**Juanito Gorostiza.**


Uttmi leAn e iteka

atxutxiamaika
AISIALDI TALDEA

115e411ALEAK 15E14A1? 1711zA

A 7-26 URTF biTARTEk0 NESkA-MUTIlAk
AAI101k0 EUSkARA WIENFiERATZEA
AlIAURREkiN IAN Eq1TEk0 ZA1ETASUNA

SUKALIDARIAK t5E1-{AR 1711zA

ASUkAidERAk0 ZA1ETASUNA
AA110ZkO EUSkARA MENOERATZEA

**Izena ematea** nahi duenak Elgoibarko izarratik pasa dadila
**Ubitarte 4, behea.**
edota **943 74 16 26** telefonora dei dezake (Itziar)

Maiatzak 25, zapatua
TRINITATEETAKO AFARIA
Langostino Egosiak
Entsalada mistoa
Makailoa pipErrekin
Edo oilaskoa
Etxeko postrea
Kafea eta Edariak

15 Etir6 2soO p;ta.
ENUR
41N0 L ERANDu

TO IJEJTXE
Pedro Muguruza 8, behea
Tel. 943 74 19 48

BARREN
ASTEKARIA

# elkarrizketa

2002ko maiatza/X. urtea/404 zkia. · GEHIGARRIA · MILEKO ELKARRIZKETA



## "NIK EZ NEKIEN ZER ZEN HERRI BATEAN BIZITZEA"

Mikel Hernandez Abaitua

# Mikel Hernandez Abaitua

## "Gazteiztarra na

*MIKEL HERNANDEZ ABAITUA, GASTEIZEN JA10 ZEN 1959A1V, EUSKAL FILOLOGIAN LIZENTZIATUA ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEDRATIKOA. 1981EAN DONOSTIA HIRIA IPUIN SARIA IRABAZI ZUEN ETA HORREK MARKATU ZUEN BERE HASIERA EUSKAL LITERATURAREN MUNDUAN. SUSA ETA OH EUZKADI ALDIZKARIETAN KRITIKA LANAK ARGITARATU ZITUEN 80KO HAMARKADAN*



**"Mikel Hernandez Abaitua (1959) gasteiztarra da jaiotzez eta elgoibartarra izatez". Hala irakur daiteke "Etorriko al haiz nirekin?" nobelaren kontrazalean.**

1967an-edo iritsi nintzen Elgoibarrera, 7 edo 8 urterekin. Aldaketa handia izan zen. Kontraste handia. Andone Enean bizi ginen gu, mataderorik hurbil, menditik oso gertu. Nik ez nekien zer zen herri baten bizitzea. Gasteizen bizi ginen lehenengo eta Bilbon gero eta kontrastea ikaragarria izan zen.

Elgoibarren eman nituen Donostiara karrera ikastera joan bitarteko urteak. Beraz, bai. Gazteiztarra naiz jaiotzez, baina elgoibartarra izatez.

**Elgoibarrera etorri zinen Gasteiztik eta ordurako** ba al zenekien **euskaraz?**

Ez, ez. Gainera orduan oso jende gutxik hitz egiten zuen kalean. Gogoratzen naiz, Franco hil zenean jende mordo bat hasi zela kalean euskaraz hitz egiten, nire arridurarako, askotan. Horrek ere badaki euskaraz? —galdetzen nion neure buruari- Orain arte ez baitiot sekula entzun...

Gero neuk ere euskaraz ikasi eta euskal filologia egitea erabaki nuen.

**Gaur egun Donostian bizi zara. Etortzen al zara Elgoibarrera?**

Ez. Behin baino gehiagotan hurbildu naiz libururen bat aurkeztera, baina nire aita ez bezala — Gasteizen bizi da baina astero etortzen da lagunengana- ez naiz sarri agertzen. Gainera uste dut orduko nire lagunak ere ez direla Elgoibarren bizi. Asko akordatzen naiz baina, beraiekin: Gorosabel, Goikolea, Josu Mujika, Eizagirre, Juaristi, Garai, Errazti, Gorriti, Lazkano, Victor eta Iginio, Garagartza... Horiek denak gogoratzen ditut.

**Filologia ikastera zoaz Donostiara, eta orduantxe ekiten diozu literaturari. Susa, Oh Euzkadi...**

Bai, orduan hasi nintzen irlazten, Susa muntatzen... eta gero, karrera bukatu ondoren Elgoibarrera bueltatu nintzen oposaketak prestatzera, eta urtebete pasatu nuen bertan lan hon-etan. Sasoi hartan bukatu nuen nire lehenengo liburua, Panpinen erreinua, eta Elgoibarren bizi nintzela argitaratu zen. Segidan Bergarako Institutuan hasi nintzen lanean eta han nengoela bigarren liburua argitaratu nuen, Ispiluak, Hordagorekin. Oraindik kontaktuan nengoen Elgoibarrekin eta liburu hartako ipun batzuk Elgoibarren idatziak dira. Gero Irunera joan nintzen lanera, hango Institutura eta 86an alde egin nuen herritik.

**Eta lehenengo nobela argitaratzen** duzu

Bai, baina lehenago, 83an, Ispiluak berrargitaratzen da Elkar etxearekin, nahiko aldatuta. Ondoren bai, Etorriko haiz nirekin? nobela atera zen 91n, Elkar argitaletxearekin, hau ere.

Gainera, lehenengo 500 aleak nire kantuekin argitaratutako kasetearekin banatu ziren.

# iz jaiotzez eta elgoibartarra izatez"



**Garai honetan mutsikaren munduan murgildu zinen buru belarri.**

Bai, Gasteiza joaten nintzen askotan. Ruperren musikoek estudio berri bat muntatu zuten eta garai hartan musiko haiekin diska bat grabatzen saiatu nintzen, baina utzi egin nuen. Oso mundu zaila zen. Azkenean maketa batzuk grabatu nituen, irratietan jarri ere bai... baina konturatu nintzen, nire lana egin eta gero talde bat eratzea oso konplexua zela. Literaturarekin askozaz errazago antola nezakeen nire denbora.

**Beraz, musika apur bat utzi eta Literatura eta Roc and Rolla argitaratzen duzu.**

Hori, berez, zera da, 95a inguruan Pello Lizarraldek, Jon Alonsok eta Eneko Olasagarrek deitu zidaten Iruñatik. Hitzaldi bat eman nuen Iruñan, gainera gogoratzen naiz nola kitarra ere eraman nuen nire pieza batzuk kantatzeko. Gero hitzaldi hura argitaratzea eskatu zidaten Pamielakoek eta lan hori hitzaldi bat baino ez da.

Hala ere, oso formato berritzailean argitaratu zen, Italiako Millelire kolekzioaren ideia baten gainean.

**Eta berriz itzultzen zara ipunak idaztera. Bazko arrautzak ematen duzu argitara, Elkarrekin 1995ean.**

Panpinen erreinua berriro argitaratu nahi nuen, baina ipuin berri batzuk erantsita. Kontua da, espero nuena baino ipuin gehiago idatzi nuela eta argitaratzaileak ipuin horiekin liburu berri bat argitaratzea proposatu zidala, Panpinen erreinua bere horretan utzita.

Badaukat baina Panpinen erreinua berrargitaratzeko asmoa. Oso epilogo luzea daukat idatzita iadanik, garai hartako gauzak gogoratuz, orduko pasadizoak kontatuz... eta egia esan nik uste dut datorren urtean argitaratuko dudala, hogeigarren urteurrena beteko baitu.

> "PANPINEN ERREINUA LIBURUAK DATORREN URTEAN 20 URTE BETEKO. DITU"

Bazko arrautzak liburuaren ondoren Ahotsak atera nuen, 96an Ereinen. Nolabait esateko, aipatu dizudan millelire haren formatoan ateratako liburuxka da. Baina, hor agertzen diren gauzak, gero nobelan agertzen dira. Nolabaiteko aurrerapen bat izan zen.

**Ohe bat ozeanoaren erdian (Erein, 2001) nobelaren aurrerapen bat.**

Bai. Errelismoan murgiltzeko aukera eman zidan liburua. Eta horixe da, hain zuzen azkenengo nobela. Nobela errealista bat. Hasier Etxeberdak duela gutxi egin zidan elkarrizketa baten, nobeia obsesiboki errealista zela esan zidan. Eta baietz uste dut, arrazoia duela. Nobela Hiper-errealista dela. Gaurko errealitateari,

Gerra zibileko pasadizuak ere tartekatzen dizkiot, egiazkoak, euskal literaturan gutxitan kontatu delako gerra zibila Arabatik. Garai hartan oso arraroa zen nazionalista izatea Araban. Gure aitona ere fusilatu egin zuten Araba Buru Batzarrekoa. izateagatik. Interesgarria iruditu zait gertaera horiek kontatzea.

**Zeintzuk dira hurrengo proiektuak?**

Orain tesi doktorala prestatzen ari naiz Saizarbitoriaren nobelagintzaz. Baina buruan badauzkat beste nobela batzuk eta Euskal Herriari buruzko trilogia bat osatuko dudala uste dut aurreko biak aprbetxetuta. Baina ez dut uste idatziko dudan hurrengo nobela izango denik trilogia hori osatuko duena.. Hirugarren nobela idazten ere hasita nago, errealista ez den nobela da. Agian historiarik kontatzen ez duen nobela bat Trilogia osatuko duena, agian, aurreko bietako protagonista Bolognatik itzultzen denean, Euskal Herri hobeago batera bueltatzen denean idatziko dudala uste dut. Izan ere, nobela samurragoa izan dadin gura nuke.

# atzera begira

## pausoz pauso




• 1959an jaio zen Gasteizen eta zazpi urte zituela, Elgoibarrera etorri zen familiarekin.

• Hogeitabi urterekin Donostia Hiria ipuin sariketa irabazi zuen.

O 1983an, Panpinen erreinua argitaratu zuen, Donostiako Hordago argitaletxearekin.




O 1985ean, Ispiluak ipuin liburua argitaratu zuen, Hordagorekin. Liburu hau Elkarrek berrargitaratu zuen 1993an.

O 1991n, argitaratu zuen bere lehenengo nobela. "Etorriko al haiz nirekin? (Ellkar)

tel Literatura eta Rock and Rolla (Emak bakia baita, 1994). Saiakera.

0:1 Bazko arrautzak argitaratu zuen 1995ean. Ipuinak



• 1996an, Ahotsak ipuin liburua eman zuen argitara, Erein argitaletxearekin.

O 2001ean, ARGITARATU DIJ bere azken nobela: OHE BAT OZEANOAREN ERDIAN.



# Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 10 Zabaleta | Zabaleta |
| 11 Etxeberria (Rosario kalea) | Etxeberria |
| 12 Etxeberria (Rosario kalea) | Etxeberria |
| 13 Ibañez | Ibartez |
| 14 Bidasolo | Bidasolo |
| 15 Etxeberria (Sania Ana kalea) | Etxeberria |
| 16 Fernandez | Fernandez |

**FARMAZIAK**

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze,
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herrika enparantza 4, Garagarza,
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

12 igandea **Ibarrenea**

## EuskoTren

## Eusko #reld

A1 7013115.41:

**DONOSTIA-BEBO**
**Egunero**
Donostiamolo 5.45 06.45... 20.5
Elgoibar 07.02 08 02.. 22,02
• jaiegunetan 7 -15ean hasiko dira era orduero egongo dira

**BILBO-DONOSTIA**
**Egunero**
**Bilbo** 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
*Ialegunetan 8.00etan hasiko dira era orduero egongo dua

**MENDARO-EIGOIBAR**
**Egunero**
**Mendaro** 07.50 08.50... 21.50

**ELGOIBAR-MENDARO**
**Astegunetan**
**Elgoibar** 07.25 08.25 10 25... 21 15

**Jaiegunetan**
**Elgoibar** 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PESILTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

**EIBAR-ONDARROA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00:40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | **02.55** | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

**ONDARROA-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | D1.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03 40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

**EIBAR-MUTRIKU**

| | | | | |
